



#### ARTE [7]

El museo Guggenheim y la Sala Rekalde ofrecen la posibilidad de confrontar la obra de los videoartistas Bill Viola y Sergio Prego.



#### MUSIKA [9]

Hoy se estrena «Buruntza», una composición de Gorka Aída en la que se dan cita la música, la danza y las artes plásticas.




#### ZINEMA [11]

Gerardo Herrero rueda en Galicia el documental «Heroína», sobre la lucha de las madres gallegas contra el narcotráfico.

# mugalarari 284

gara  KULTUR GEHIGARRIA

2004ko abuztuaren 28a, larunbata



## TXILLARDEGI

Idazle, soziolinguista, euskaltzale, politikari...  
Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*-ren  
jardunbide oparoa gogoratuko da irailaren  
hasieran egingo zaion omenaldian.

## LITERATURA

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA, TXILLARDEGI



# «Literatura niretzat dibertimendu bat izan da»

Irailean omenaldia eskainiko diote Txillardegiri. Euskal Herriko azken hamarkadetako historian ezinbesteko pertsona dugu. ETaren sortzaileetako eta ezker abertzalean lerratua, bere jarduna batez ere euskara batuaren sorrerari lotua dago eta euskal literaturak izan duen indartzeak asko zor dio berari.

Joxemari CARRERE

Literatura mundu itogarri honetatik pixka bat aldentzeko arnasbidea izan duela dio Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik. Euskal eleberria garaiko kostumbrismoa atera eta nazioartean nagusi ziren joerak gurerara ekartzeko ahaleginean, urrats erabakigarriak eta gerora gainerako oinarri izango zirenak eman zituen idazle donostiarrak bere lanekin. Baina horretaz haratago, hizkuntzalaritza, fonologia, soziolinguistika, eta saiakeran ere, euskara eta Euskal Herria hausnargai beti, puntako ikerlaria izan da, eta horretan dihardu gaur egun ere lan eta lan.

Ez dakit zu nola definitu, sorkuntza literatura egiten duen hizkuntzalaria edo hizkuntzalaritza lantzen duen idazlea, izan ere zure lehenengo liburua eleberrit bat izan zen. Egia da, nik sei nobela argitaratu ditut, berraz, hala ikusita, literatur gizona naiz. Baina niretzako literatura beti izan da bigarren mailako jarduna, betidanik askoz ere inplikatuagoa egon naiz arlo politikoan, abertzaletasunean, edo soziolinguistikan, euskararen fonologian eta halako gauzetan literaturan baino. Literatura gehiago izan da niretzat dibertimendu bat, mundu itogarri honetatik pixka bat aldentzeko.

Gaztetan irakurle amorratua izan nintzen. Bilbon ikasle nintzen garaian bazeuden bi enpresa etxera liburuak saski batzuetan ekartzeko zituztenak, eta astean bi liburu har zitezkeen; ni bietan sartua nintzen. Orduan irakurri nuen irakurri dudana literatura guztia; geroztik ez dut denborarik izan. Hori bizio bat da; irakurtzen bada areagotu egiten da, baina irakurtzen ez bada itzali egiten da, eta une honetan ez dut barne bakerik lortzen irakurtzeko; eta hori zoritxar bat da. Plazer handia da irakurtzea, baina une honetan beste interesgune batzuk ditut eta fikziozko literatura, saiakera ez bezala, ez dut jarraitzen, zoritxarrez. Bekatua edo halako zerbait dela onartzen dut.

Dibertimendua aipatzen duzu, baina este dut konpromisoa ere aipa daitekeela. «Le-

turiaren egunkari ezkutua» zure lehenengo eleberria euskal literaturak behar zuen modernizatzeko baten saiakera bat ere izan zen, gainera, orduan Frantziatik zetorren existenzialismo joera horren bidetik.

Garai hartan guk ikusten genuen hemengo literatura pellokaria bat zela; poesian behar bada ez, Lizardi eta horien bidetik, baina nobelan ez zegoen ezer, eta zegoena halako kostumbrismo merke bat zen. Orduan gure lagun taldean ikusten genuen orduko problematika euskaraz eman behar zela, eta hala sortu zen «Leturiaren Egunkari ezkutua» (1957). Nire asmoa izan zen nobela filosofiko bat egitea, eta ia-ia konturatu gabe atera zen, inongo aurreikuspenik gabe. «Peru Leartzako» (1960) bide beretik joan zen, beste nobela filosofiko bat. Istorio bat kontatzen zuen lehenengo nobela «Elsa Shellen» (1969) izan zen. Euskaltzaindiak sari bat eman zidan, baina kritikek sekulako astindua eman zidaten; hori ez zela nobela egiteko modua, hemeretzigarren mendeko zela eta antzekoak, eta nobela idazteko gogoa kendu zidaten. Horrela egon nintzen urteetan, harik eta «Haizeaz bestaldetik» (1979) argitaratu nuen arte; baina hau ere eleberrit sasi-filosofiko bat da, Joxe Azurmendik esan zidan bezala, poema filosofiko bat. Ez zitzaion arrazoia falta, nik Nietzscheren Zaratuaren ildotik egin bainuen, baina berriz ere ez zen istorio bat kontatzea, baizik eta mamia. Hurrengo benetako nobela «Putzu» (1999) izan zen, karlistadetan girotutako eleberrit historikoa. Bueno, aurretik «Exkixu» (1989) argitaratu nuen, ETako militante baten nondik norakoak kontatuz, benetako pertsona batean oinarrituta. Gose greba batean ezagutu nuen eta sinestuna ez izan arren kontatu zidan mezetara joaten zela euskara egiten zelako. Eta hori da hain justu Memmi, tunisiar idazle batek ere egiten zuena. Nik liburu bat itzuli nion eta Parisko bere etxera joan nintzen liburua eskaintzera. Oso pozik hartu ninduen Parisen lan egiteko zeukan txoko batean. Berak euskal arazoa ezagutzen zuen gutxi gorabehera, eta interesez hartu zuen. Nik aipatu nion bere liburua oso interesgarria zela kolonizazio prozesua nolako den ezagutzeko. Orduan esan zidan bera

judutarra izanik ere, arabiarra entzuteko meskitara joaten zela. Eta kasualitatez, horixe bera zen Exkixuren kasua, hau Lezora meza euskaraz entzutea sinesgabea izanik, eta bestea meskitara arabiarra entzutea judutarra izanda.

Fikziozko literaturari hauxe litzateke nire apoteosioa, baina nik neuk ere ez dakit nola azaldu horren garrantzia, geroak esango du, nik gehiago ikusten dut nire adar bat bezala, askoz ere arreta bandiagoa jarri diot euskararen borrokari, saiakeren bitartez. Hizkuntza eta pentsaera garai hartan ere borrokarako bidea izan zen.

**Badira idazleak aipatu izan dutenak euskaraz idazten hasi zirela euskaraz literatura berri bat behar zuelako, baina gaur egun gustuagatik idazten dutela, egoera lasaigoan, behar haren presiorik gabe. Zuk berdin ikusten duzu zure burua?**

Ez dakit. Esate baterako, Atxagak beti esaten du berak euskaraz idazten duela gustuzten zaiolako, besterik gabe. Nik ez dakit noraino den horrela. Zergatik ez du erdaraz egiten, ondo baitaiki; nik uste dut zerbait gehiago badagoela. Iruditzen zait Atxagak disimulatzeko joera nabarmena duela, euskaltzalegoa dela azaltzen duena baino. Beste idazle batzuk, aldiz, argi eta garbi uzten dute euskaraz idazten dutela gure hizkuntza delako.

Garai hartan bi egile aipatu ohi ziren, "Huntaz eta hartaz" (1965) liburuan aipatzen ditudanak: Unamuno eta Baroja; bata bilbotarra, bestea donostiarra. Barojak, tematikaz eskalduna goitik behera, asko zekien horretaz eta bere nobela historikoak oso interesgarriak dira. Baina bi egile hauek beste garai batekoak dira, beste mentalitate batekoak, beraien ikuskera historikoa Menendez Pelayoren ideia da, *la España inmortal* eta halakoak.

**Idatzietan aipatu izan duzu euskal klasikoak ezagutu beharra, garai batean idazle guztiak ezagutzen zituztenak. Gaur egun, berriz, iruditzen zaizu behar besteko garrantzia ematen zaiela, batez ere idazle gazteen aldetik?**

Alde honetatik Joanmari Irigoienen kasua oso interesgarria iruditzen zait. Bera "Lur bat haratago" eleberrian, Axularren bidetik, hamazazpigarren mendeko euskararen erabiltzen saiatu da. Irigoien bezala beste askok ere edaten dute iturri horietatik. Neuk ere, orain ez, baina bolada luze batez klasiko guztiak irakurri nituen, notak eta hartuz. Esaterako, ikustekoa da nola dudana Axularren "Gero", dena azpimarratua goitik behera. Hori gertatzen da gaur? Beharbada gazteen artean ez, ez dakit. Euskararen aldetik interesgarria da, baina gaur egun Axularren aszetika hori gazteei interesatzen zaie? Nik, egia esan, ez dakit. Dena dela, memento honetan Gasteizko fakultatean ikerketa interesgarriak egiten ari dira.

**Agian, euskal literaturan gertatzen ari dena da gazteentzat klasikoak azken berrogei urtetako idazleak izatea, Aresti, zu, Axaga, Lertxundi... alegia, zuek izatea zenuen erreferentzia literarioak.**

Bai, igotala da, gu klasiko bihurtu (bare egiten du). Lehengoan Euskal Herriaren Adiskideen elkarteak argitaratutako artikulu bat irakurri nuen eta hor aipatzen da Unamunok ez zuela sinesten euskaraz inoiz gaurkotatuzko gazteaz aritzeko tresna izango zenik. Bertan aipatzen da gaur egun hori ez dela egia, eta bestearen artean, idazle moderno gisa aipatzen dira Aresti eta ni neuk ere. Hori ohore bat da niretzat, batez ere kontuan hartuta elkarte horretan erdaldunak ere aritzen direla, halako elkarte misto bat dela esan-goa nuke, eta euskaraz kontuetan askotan

«Gaztetan irakurri nuen

irakurri dudana literatur

guztia; geroztik ez dut

denborarik izan»

atzean gelditu direla iruditzen zait; eta orain halako onarpen bat egotea onuragarria da. Egia esan, garai batean euskararen gainean erdaraz egiten zen. Mitxeleak berak ere lan asko eta asko erdaraz egiten zituen. Euskaraz prest ez zegoenaren halako ideia bat zegoen. Txekian ere antzeko egoera ematen zen. Beren hizkuntza izan arren, alemana zen hizkuntza «kultura». Han ere bertako hizkuntzaren alde aritu zen Palacky, hango aita ponteokoa izan zena, XIX. mendean argitaratu zituen bere lanak eta lehenengoak alemanez eman zituen, ondoren txekieraz argitaratu bazuen ere. Hau leku askotan gertatu izan da. Dena dela, badira oraindik gure artean idazle erdaldunak horretaz ohartu ez direnak.

**Garai batean antzerkiaren garrantzia aipatu izan zenuen euskararen berpizkunde bidean, baina antzerkigintza euskaldunak ez du urrezko aroa bizi. Ia ez da antzerkian idazten euskaraz, euskal literaturaren sende makalena dugu.**

Agian soziologikoki aldatu dira garaia. Lehen jendea teatrorra joaten zen, besteak ez zegoelako, baina gaur egun telesailak eta ez ote dute horren segida hartu? Gaur egun ETB eta irratia euskaraz ditugu, garai batean ez zegoen ezer, beharbada funtzioak aldatu dira. "Egan" aldizkariaren antzeko gertatzen dela iruditzen zait. Garai batean ez bezala, gaur egun ez dakit zer funtzio bete dezakeen aldizkariak, ikusirik hainbeste argitalpen daudela. Beharbada espezializazioa eta ikerketa litzateke bidea.

**Bestalde, arazo baten gainean oharatzen zenuen, alegia, euskaraz idaztean mordolokiera eta garbizalekeria, horiek in kontuz ibili beharra. Gaur egun estandarizazio handiagoa ematen da, baina idazten hasi zinienean zaila izan behar zenuen bide bat aurkitzea. Gaur egun arazo horretatik libre gaudela uste duzu?**

Uste dut garai batean zegoen garbizalekeria gaindituta dagoela, baina iruditzen zait beste aldera gu dugula. Zabarberia handia dagoela uste dut. Orain dela gutxi Gotzon Garatek liburu bat kaleratu du hori duela aipagai. Eta berak badaki honetaz. Berak dio tradizioari uko egin zaiola eta horretarako arrazoirik ez dagoela. Aurretik esaten genuena kontuan hartu beharko dugu, alegia, klasikoak kontuan hartzea, edo bertsolariak.

**Dena dela, gaur egungo idazle gazteek eskolan ezagutu dute euskaraz literario modernoa, zuen gazte garaian ez bezala. Jakina. Aresti bera euskaldun berria zen eta arazo hori bazuen; ni ere praktikan ha-**

«Ez da ahaztu behar

euskararen aldeko

kontzientzia oraingo

kontua dela»

laxe naiz, gurasoak euskaldunak izanik ere, euskaraz nire seme-alabekin entzun nien. Gure adineko askori gertatutakoa da. Donostian zaila zen entzutea ere; kaian bazen taberna bat bertako jendea ibiltzen zena, eta han entzuten zen. Orain, berriz, ohikoagoa da euskaraz entzutea. Hala ere, kalitatea da kezkatzekoa gaur egun, finketa lana egin behar da.

**Horren gainean azken aldian euskalkien gaia aipatzen ari da, alegia, euskalkiak kontuan hartzea hizkuntzaren aberastasun bideak bilatzeko.**

Nik uste dut euskaraz oso inportantea izan dela; orain, askotan esaten da euskaraz batua bizigotuta edo jatorri nahi badugu nahi eta nahi ez euskalki bizen bidez egin beharko dela, izenlagunen edo esaren eta antzekoen bitartez. Gauza da hori nola ikasi. Toribio Alzagak antzerkia idaztean erabiltzen zuen euskaraz kalean entzuten zena izaten zen; orain, berriz, arazoa da kalean entzuten dena nolako euskaraz den. Lehengoan, kai aldean paseatzen arin nintzela, sareak konpontzen ari zirenak euskaraz entzun nituen, eta poztu nintzen.

**Zure lehenengo eleberria argitaratu eta ondoren euskaraz gaur arte egindako bidea ikusita, uste duzu euskal literaturak oinarri sendoak dituela aurrera egiteko?**

Nik baiezkoan nago. Ez da ahaztu behar euskararen aldeko kontzientzia oraingo kontua dela, hirurogeiko hamarkadan emandakoa. Gerra aurrean salbuespen batzuk bazeuden, Aitzol eta haiako batzuk. PNVtik ezin da ezer espero, erdaltzalea izan da, da eta izango da. Nik uste dut ezker abertzalearen inguruko mugimenduan ziurtatuta dagoela hori, gainera, gaurko gazteek oinarri sendoagoa dute gaur egun genuena baino. Niri gazte jendeak, eta gainera ezker aldera jotzen duenak, esperantza ematen dit. Gazteetan eta ezkerrean dago. Zer ezker? Hori beste polemika bat litzateke. Nik ikusten dudana moduan, antikapitalista izatea da. Chavezkin gertatzen ari dena, esaterako erreferenduma irabaztea, aspaldi honetan nazioartearen izan dugun berri on bakarra da.

**Zure eleberririk haren urtetik behin heldu izan zaizkigu. Artean bestelako lanak kaleratu ohi dituzu. Esku artean beste lanik baduzu?**

Bueno, hau sekretua da. Orain bost saiakeraz osatutako liburua ari naiz prestatzen, "Horretaz" izenburua izango duena aurreko "Hontaz eta hartaz" haren harira, eta galdera funtsezkoen erantzunen gainean ariko naiz. Planteamendu filosofikoa da, gizonaren atzean dauden oinarriko kezka hartuta. Gizona unibertsioan nola dagoen, nire betiko kezka izan dena, hain zuzen. Dezente aurreratuta daukat, baina noizko aterako dudana ikusteko dugu. Hauxe da esku artean dudana. Bestalde, bertsolarien azterketa bat egiten ari naiz aspalditik, batez ere fonologiaren aldetik. Esango didate bertsolari horiek gehienak gipuztako direla eta berriro egingo dugula gipuzkoanismoa, baina tira, bizkaitarismoa ere badago. Dena dela, fonetika aldetik, ahoskera aldetik, gauza interesgarri asko dago, eta niri beti asko interesatu izan zait hau, baina pixkanaka hartuko dut. Hizkuntza bat lehenengo hitz egiteko da, eta ondoren dator idaztea. Hizkuntzak bizi izan dira idatzia izan gabe. Bestalde, orain kaleratu berri dut "Euskararen aldeko borrokan". Liburu honetan garai bateko euskaraz baturaren gainean zeuden eztabaidetan nik idatzitako lanak azaltzen dira, gaurko jende gazteak ezagutzen ez dituenak, asko "Branka" aldizkarian argitaratutakoak. Agian, bigarren partea aterako dut, argialetxeak nahi izanez gero.

## TRESNA MAGIKOEN ESKAINTZAILA

**E**uskara da gure territorio libre bakarra» idatzi zuen Joseba Sarrionandia. Ipuinetan gertatu bezala, ordea, lurralde miresgarri horretara heltzeko hamaika pasadizo bizi beharko du bidaian jartzen denak. Dena dela, bidaia hori ez du bakarrik egingo, bidean laguntzaile apartak aurkituko baititu begiak. Eta arima zabalik edukiz gero. Eta bilaketa horretan tresna magikoak eskainiko dizkiote. Txillardegik bidaia horretan aurki-



tuko dugun laguntzaileetako bat dugu eta hamaika tresna magiko eskainiko dizkigu. Eleberririk, saiakerak, ikerketak eta batez ere, grina, pasioa, erabakitasuna. Nerabezaruan "Leturaren egunkari ezkutua" irakurtzen existentsialismo hitza ezagutu genuen. Zer demontre ote zen galdetzen genuen geure buruari, baina Frantziatik zetorren hitza, ideia zela azaldu ziguten eta hango filosofo eta idazle ospetsuen deskribimendua zela ikasi genuen. Sartre ezagutu genuen. Eta mundu berri bat zabaldu zitzaigun. Euskaraz barne mundua deskubritzeko ere baliagarria zela deskubritu genuen. Artean oraindik ez genekien oso ondo euskaraz eskribitzen edo leitzen. Aditz taula ulergaitza egiten zitzaigun. «Nori bururatu zitzaizkio halako gauzak?» Eta "Euskal aditz batua" liburua esku artera heldu zitzaigun. «Egunkari ezkutua idatzeko taula hauek ikasi behar ote dira?». Eta euskararen aldeko borrokan murgiltzen ginen eta horren aldeko artikulua irakurtzen genuen, eta hantxe zen berriro izengoitzi hori, eztabaida pizteko beti prest.

Urteek aurrera egin dute eta existentsialismoa agian hitz zaharkitua iruditzen zaigu, eta aditz taula ulertzen dugu eta euskararen aldeko borroka Txillardegik kaleratu berri duen liburua izenburua da. Eta zerbait gehiago. Baina liburu hori begien aurrean jartzen duenak ikusiko du territorio hori gelditzen zaigun bakarra bada ez dela inongo oparirik izan, baizik eta bidaian lagungarri izan ditugun pertsonengatik. Txillardegik horietako bat dugu.